

EUSKAL KULTURAREN GORABEHERAK LAUROGEITA HAMARGARREN HAMARKADAN

Euskal kulturak aurrerapauso garrantzitsuak eman ditu lau-
rogeita hamargarren hamarkadan. Dena dela, handiegia dira
oraindik ere dituen hutsuneak. Gauzak horrela, eta milurteko
berrian sartzera goazenean heinean, ezinbestekoa da euskal
kulturak dituen alde sendo eta ahulei buruzko gogoeta egitea
non gauden eta nora goazen jakiteko. Are gehiago, guztiz be-
harrezkoa da gaur egun euskal kulturak bizi duen noraeza zu-
zenduko duen kultur egitasmo bat bultzatzea.

Euskal kultur erakundeen azpiegitura hobegotu egin da

Euskararen eta euskal kulturaren alde lanean ari diren era-
kunde askok hobegotu egin dute euren azpiegitura 90. ha-
markadan. Euskararen irakaskuntzan diarduten elkarte ezberdi-
nek (Aek, Ika, Zenbat Gara, bai & by elkarteek, adibidez) bere
euskaltegi, barnetegi eta bilguneen sarea (Kafe Antzokia,
Kalderapeko...) zabaldu eta sendotzea lortu dute. Ikastola be-
rriak zabaldu dira (Iparraldean eta Nafarroan bereziki). Eusko
Ikaskuntza zein Euskaltzaindiak, euren egiturak sendotu eta
kongresu, batzar eta ekimenak antolatzeke gaitasuna eta maiz-
tasuna handiagotu dituzte. Bertsolaritza bera ere asko indartu
da hamarkada honetan. Bertso-saio eta jaialdietako antolakun-
tza beste goi mailako edozein ekintza kulturalen parekoa

bihurtzeaz gain, bertsolaritzaren inguruan azpiegitura sendoa garatu da (Bertsolarien Elkarte, bertsolari-eskolak, Bertsolari Txapelketak, telebista-saioak, aldizkaria, liburuak...). Egunkaria, euskarazko herri aldizkari (50 bat inguru) eta telebisten agerpena (5 bat gutxi-gorabehera) edota Kontseiluak bultzatutako euskararen inguruko XXI. Mendeko Akordioa bezalako ekimenak ere euskal kulturak hamarkada honetan eman dituen fruitu bikainen adierazle dira.

Era honetako erakundeen azpiegitura hobeagotzeak ez du esan nahi, dena dela, euskal kulturak azpiegitura egokia duenik. Izan ere, hauetariko erakunde askok baliabide ahulegiak dituzte euskal kulturari behar bezalako indarra eta maila emateko. Ugariak dira euren iraupena ziurtatzeko ezinbestekoak diren erreprodukzio sozialaren mekanismoak ere ez dutenak. Ez da aiantzi behar, Egunkariak ez duela errotatiba propiorik, euskaraz diarduten herri aldizkari eta telebista asko eta askok diru arazo larriak dituztela edota euskal liburugintzan aritzen den industria ahulegia dela euskal liburuaren ekoizpen egoki bat bultzatzeko. Esan beharrik ere ez dago euskarazko antzerkiak eta zineak ere hutsune nabarmenak dituztela.

Donostiako Antzerki eskola, Euskal Herriko Unibertsitateko antzerki diplomatura eta zenbait herritan antzerki eskolak agertu badira ere (Basauriko Antzerki Eskola, adibidez), aipagarria da era honetako guneen urritasuna. Era berean, euskal antzerki sare egonkor bat sortzeko aretoen falta dago. 90. hamarkadan antzoki eta kulturetxeen sarea asko hobeagotu bada ere (Barakaldo Antzokia, Arriola Kultur Elkarte, Zornotza Aretoa, Durango, Lugaritz...), antzezlanak aurkezteko areto gehiago beharko lirakeezela ez dago zalantzarik. Are gehiago, zenbaitzuen ustez, gabezia hauen ondorioz antzerkia euskaraz ikusteko aukerak gutxitu egin dira azken urteetan.

Euskal zineak antzerkiak berak baino arazo gehiago ditu. Filmeen ekoizketari dagokionez, ezin, inolaz ere, euskal zine bat dagoenik esan. Euskaraz egiten diren filmeak oso gutxi

izateaz gain, kalitate eskasekoak dira. EITB-k ekoiztu zuen *Agur Olentzero Agur!* filmea aipatzeka besterik ez dago. 50 milioi gastatu ondoren ez du inor pozik utzi. Euskarazko filmeen industria hutsaren hurrengoa da.

Bikoizketa kontutan hartzen bada, ahulezia bera somatzen da. Euskal Telebistaren inguruan nolabaiteko bikoizketa industria bat sortu bada ere, honek ez du zinema aretoetan inolako eraginik izan. EZA (Euskara Zinema Aretoetara) egitasmoa eta Euskal Zinematografiaren Legea sortuta badaude ere, gaur gaurkoz zine aretoetan euskarazko filmerik ikustea ia ezinezkoa da.

Diru gehiago etorri da euskal kulturara

Erakunde publikoetatik diru gehiago etorri da euskal kulturara hamarkada honetan. Aek-ak, adibidez, 534 milioi hartu zituen erakunde publikoetatik 1997.urtean. Eusko Jaurlaritzakin eta Nafarroako Gobernuarekin sinatu dituzten akordioei esker, gauzak asko hobegotu zaizkie euskararen irakaskuntzan ari diren elkarteei. Hartutako laguntzekin azpiegiturak hobegotu eta bere irakasleen lan baldintzak hobegotu dituzte (Aek-ren kasuan irakasleen gizarte segurantza ordaintzea ahalbidetu du, adibidez). Euskaltzaindiak ere diru kopuru garrantzitsuak hartzen ditu. 1996. urtean, esaterako, 247.839.368 pezeta jazo zituen. Eusko Ikaskuntzak ere 50 bat milioi hartzen ditu urtero. Egunkariak, bere aldetik, urtean 127 milioi inguru jasotzen ditu erakunde publikoetatik.

Euskararen inguruan aritzen diren erakundeek inoiz baino diru publiko gehiago hartu badute ere, bizi dugun errealitateak argi erakusten du ez dela nahikoa gaur egun euskal kulturak duen egoerarentzako. Egunkariak, esaterako, arazo larriak ditu proiektua sendotu eta aurrera egiteko. Euskaltzaindiak ere diru gutxi dauka gizarte honek eta erakunde publikoek eskatzen dioten lana betetzeko. Herria aldizkari eta telebista askok ere diru arazoak dituzte. Zinea ekoizteko eta bikoizteko ekimetara

ere diru gutxi zuzentzen da eta dauden antzerki taldeentzako laguntzak urriak dira. Are gehiago, martxa onean ziarduten kultur talde asko laguntza gabe utzi eta, kasu askotan, ito egin direla ezin dugu ahantzi.

Euskal kulturara hurbiltzen direnen kopurua handituz doa

Arazoak arazo, inoiz baino jende gehiago hurbildu da euskarara eta euskal kulturara hamarkada honetan. Zenbakiak gordinen hartuta, euskarak eta euskarazko produktuek ez dute inoiz horrenbeste jarraitzaile eta hedapenik izan. 1997. urtean, adibidez, 14.808 ikasle eta 985 irakasle zituen Aek-ak. Eusko Ikaskuntzak, bere aldetik, 3000 bazkide dauzka gaur egun eta Ikastolen Konfederazioak 40.000 ikasle ditu. Hamarkada honetan 10.000 bat euskal liburu argitaratu eta *Kutsidazu bidea Ixabel!* eleberria 20. argitalpenera heldu izanak, bestalde, garbi erakusten dute badela euskal irakurlego bat.

Euskarazko komunikabideetara hurbiltzen direnen kopuruak ere handituz doaz urtetik urtera. ETB1-ek, adibidez, %3an handitu du teleikusleen portzentaia 1992. urtetik (1992. urtean teleikuslegoaren %4,5 izatetik 1997.ean %7,5-ra pasatu da). Gainera, *Goenkale-k* milioi erdi pertsonengana hurbiltzea lortu du. Honekin batera, aipatzekoa da 1998ko urritik ETB Sat, EITB-ren Satelite bidezko kanalak, Estatuan zein Kontinente Amerikan zehar euskarazko programak ikusteko aukera zabala eskaintzen duela. Euskarak ez du inoiz mundura agertzeko hain leho handirik izan. Ez da ahantzi behar, bestalde, Euskal Herrian 20 herri telebista daudela eta hoietatik 5 euskaraz aritzen direla. Euskarazko irratiek ere gero eta entzule gehiago dituzte. Aipagarria da Euskadi Irratiak 81.000 eta Euskadi Gazteak 51.000 entzule erakartzen dituztela egunero.

Idatzizko komunikabideetara begiratzen badugu, Euskal Herrian gutxi-gorabehera 450.000 pertsonengana heltzen diren 50 herri aldizkari daude. Datu honi Egunkariak 1991. urtetik

bere salmentak %12an handitu dituela gehitu behar zaio. Gaur egun gutxi-gorabehera 12.500 Egunkari saltzen dira egunero. Lehen esan bezala, euskal irakurlego bat dagoenik ezin ukatu.

Honi guztiari bertsolaritzak duen onarpen sozial garrantzitsua gehitu behar zaio. Zentzu honetan, gaur egun beste edozein ekintza soziokulturalek baino indar gehiago agertzen duela esan genezake. Inoiz ez da izan Euskal Herrian azken urte hauetan izan diren beste bertso-saio eta bertso-saioetan hainbeste jende. Adibide bat jartzeagatik, Bertsolari-elkartean bildutako datuen arabera, 1992. urtean 250.000-300.000 ikusentzule erakarri zituzten 715 bertso-saio burutu ziren Euskal Herrian.

Gauzak baikor ikusteko zenbakiak direnik ezin ukatu. Ala eta guztiz, euskal kulturaren egoera kezkarria erakusten duen datu ugari ere agertzen da han eta hemen. Euskararen eta euskal kulturaren mundura hurbiltzen direnen kopuruak asko handitu badira ere, ezin ukatu Euskal Herriko biztanlego osoa kontuan hartzen bada oso gutxi direla euskal kulturgintzako arlo ezberdinetara hurbiltzen direnak. Gehien erakartzen duen euskal komunikabidea ETB1 da eta ala ere euskaldungoaren erdira ere ez da heltzen. Egunkariak 1991. urtetik bere irakurlegoa %12an handitu badu ere, bere salmentak Euskal Herrian saltzen diren egunkarien %3ra ere ez dira heltzen eta El Correo-k baino 12 aldiz gutxiago saltzen du (batenazbeste El Correo-k 137.647 egunkari saltzen ditu egunero). Honekin batera, asko dira euskal kultura gezur sozial batean bizi dela diotenak. Izan ere, liburuak eta diskoak ekoiztu, saltzen direnak baino askoz gehiago ekoizten dira, eta jendeak erosi, irakurtzen duena baino gehiago erosten du. Ikuspuntu honetatik, euskal kultura inondik ere ez duen indar itxura bat ematen egongo litzateke.

Bertsolaritzak onarpen sozial azpimarragarria badauka ere ez dira gutxi bertsolaritzak bizi duen "boom" hau euskal kulturaren etorkizunerako arriskugarria izan daitekeela diotenak.

Izan ere, zenbaiten ustez bertsolaritzak ez dagozkion espazio eta funtzioak eskuratu ditu eta, ondorioz, beste kultur agenteei (musikari, antzerkiari...) lekua kentzen die. Zentzu honetan, bertsolaritzak irakaskuntzan, komunikabideetan edota edozein erako jaialdietan duen jarraipenak beste adierazpen kultural batzuen bilakaera ostopatuko luke.

Azkenik, ez dugu inolaz ere ahortzi behar euskara egoera ahulean dagoela. Orain dela urte batzuk baino indartsuago agertzen bada ere, euskararen etorkizuna arriskuan dago oraindik ere. Euskal kultura euskaraz egiten den kultura bezala definitzen badugu, euskal kultura, euskara bera bezala, arrisku larrian egongo litzateke.

Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko kultur harremanak hobegotu egin dira

Maila politikoan Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko battegite prozesuak urrerapauso gutxi eman baditu ere, arlo kulturean gauzak asko mugitu dira hamarkada honetan. Euskal Herriko alde bi hauetan kultura eta hizkuntzaren inguruan aritzen diren elkarte, erakunde eta taldeak harremanak hobegotu eta, zenbait kasutan, sendotu egin dituzte. Ikuspuntu kulturetik behintzat, Euskal Herriak lehen baino batasun maila handiagoa dauka. Arrazoi ezberdinak daude hori esateko:

Alde batetik, elkartasun kutzak sortu dira irakaskuntzaren eremuan. Aek-an (1990) eta Ikastolen Elkartean (1992) antolatu diren kutxa nazionalek Iparraldeak dauzkan gabeziak arintzen lagundu dute. Honen ondorioz, ekintza eta egitasmo bateratuagoak (1997ko Ikastolen Pedagogi Plan Nazionala, adibidez), azpiegitura hobegotoak (ikastola eta euskaltegi berriak) edota irakasle liberatu gehiago lortu dira (Aek-an bereziki).

Bestalde, Iparraldeak gero eta agerpen handiagoa lortu du kultur erakunde ezberdinen erabakitze organoetan (1992. urte-tik aurrera, esaterako, Eusko Ikaskuntzak Lehendakariorde bat dauka Iparraldean). Gero eta ugariagoak dira ere Iparraldeko

erakundeekin akordioak eta itzarmenak bultzatzen dituzten kultur erakundeak (besteak beste, 1994. urtean Akitania-Euskadi-Nafarroako Unibertsitateen Arteko Loturarako Arautegia onartu zen eta Eusko Ikaskuntzak Baionako Merkataritza eta Industria Ganbararekin eta Iparraldeko zenbait udaletxeekin akordioak sinatu zituen). Frantziako Ikusentzuteko Kontseilu Nagusiarekin (CSA) lortutako akordioak ere hor daude. Hauen arabera, ETBren bi kateak ikus daitezke Iparraldean. Euskal Herria irudikatzerakoan EAE, Nafarroa eta Iparraldea banatuta agertzerak behartuta badaude ere, 90. hamarkadak Euskal Irrati eta Telebista Euskal Herria osoan ikusi eta entzutea ahalbidetu du. Ezin ahaztu 1991. urtean sortutako Egunkariarentzat garrantzi bera dutela zazpi probintzietan gertatzen diren berriek eta Euskal Herria osoan zabaltzen den egunkaria dela.

Gauzak baikor ikusteko arrazoiak ez badira falta ere, ugarriak dira mugak euskal kulturari sortzen dizkion oztopoak. Esan beharrik ere ez dago euskal kultuaren baitan lanean diarduten erakundeen eta adierazpen kulturalen egoera guztiz ezberdina dela Iparraldean eta Hegoaldean.

Alde batetik, Iparraldeko euskal kultur erakundeek baliabide gutxiago eta azpiegitura ahulagoak dituzte. Eta horren arrazoia da, hain zuzen ere, mugaren alde bateko eta besteko erakunde publikoek ez diotela euskal kulturari modu berean laguntzen. Gaur egun Aek, Euskaltzaindia, Egunkaria eta Eusko Ikaskuntza bezalako erakundeak Hegoaldeko erakunde publikoei esker (bereziki, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Aldundiei esker) bizi dira. Egunkariak jasotzen dituen 127 milioien %94,5, adibidez, Eusko Jaurlaritzatik eta %5,5 Nafarroako Gobernutik datoz. Aek-ak, hartzen dituen diru laguntza publikoen %98,5 Hegoaldetik datoz ere. Euskaltzaindiaren kasuan, 1996. urtean lortutako dirulaguntzen %1 etorri zen bakarrik Iparraldeko erakunde publikoetatik. Gauza bera esan daitezke Eusko Ikaskuntzari buruz.

Bestetik, euskararen eta euskal kulturaren inguruko erakundeetan aritzen diren ikasle, irakasle edota bazkide kopuruak ere ezberdinak dira mugaren alde bietan. Iparraldean Euskal Herriko biztanlegoaren %8,7 bizi bada ere, Ikastolen Konferazioaren ikasleen %4,1 eta Aek-aren ikasleen %7 aurkitzen dugu. Honekin batera, %5era ere ez da heltzen Eusko Ikaskuntzak Iparraldean dituen bazkideen kopurua. Proporzioan irakasle, ikasle eta bazkide gutxiago dituzte euskal kultur erakundeek Iparraldean. Datu hauei Egunkariaren salmentak Iparraldean inon baino txikiagoak direla (salmenta guztien %4,6) gehitu behar zaio.

Euskal Kultur Egitasmo baten beharra

90. hamarkadan aurrerapausoak eman badira ere, euskal kulturak ahultasun nabariak ditu. Egoera honetatik ateratzeko, behar beharrezkoak dira era guztietako proposamen, ideia eta ekimenak. Are gehiago, gaur egun euskal kulturak duen nora-eza argituko lukeen euskal kultur egitasmo bat zehaztearen beharra zalantzagabekoa da; kultur interbentzio-plan bat behar da, alegia.

Dena dela, urteak aurrera doaz eta proiektu hau zehaztu gabe dago oraindik. Are gehiago, gai honen inguruan eztabaida eza nabari da eta, ondorioz, ugariak dira euskal kulturak jarraitu behar duen bideari buruzko zalantza, nahaste eta akatsak. Zein da kanpoko kulturek Euskal Herrian izan behar duten tokiak? Zenbat diru zuzendu behar da euskal kulturara behar bezalako bilakaera eta indarra bat izan dezan? Nolakoak izan behar dira Iparraldeko eta Hegoaldeko kultur erakundeen arteko harremanak? Nolakoak kultur eremu ezberdinen arteko harremanak? Zein da bakoitzari dagokion espazio eta funtzioak? Galdera hauei guztiei behar bezala erantzun beharra dago. Izan ere, gurea bezalako kulturen oraina eta geroa, euren identitatearen oinarritzko elementuen jarraipena mantendu eta egunero eraikitzeko gaitasunean oinarritzen da; eta horrek, inbertsioa, hezkuntza, behar bezalako bitartekoak, kalitatea,

konpetibitatea eta barne ekoizpena bultzatzea eskatzen du. Eta hori baino garrantzitsuagoa dena, euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea. Zentzu honetan, euskal kulturak ez du etorkizunik euskararen egoera sendotzen ez bada. Eta honek, esparru kultural gehienetan erdarazko ereduak nagusi izan ordez, euskarazkoei sarbidea ematea eskatzen du.

Patxi Juaristi